

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 5242

*115/2017 EBAZPENA, urriaren 17koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Gobernu Kontseiluak hartutako erabaki hau argitaratzea xedatzen duena: Erabakia, zeinaren bidez ebazten diren Euskadiko Industrialdeetan 2017ko ekitaldirako belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautzen eta deitzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko ekainaren 27ko Aginduaren barruan aurkeztutako eskaerak.*

Gobernu Kontseiluak, 2017ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen: Erabakia, zeinaren bidez ebazten diren Euskadiko Industrialdeetan 2017ko ekitaldirako belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautzen eta deitzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko ekainaren 27ko Aginduaren barruan aurkeztutako eskaerak; eta horri beharrezko zabalkundea emateko, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea honako erabaki hau: Erabakia, zeinaren bidez ebazten diren Euskadiko Industrialdeetan 2017ko ekitaldirako belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautzen eta deitzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko ekainaren 27ko Aginduaren barruan aurkeztutako eskaerak. Eranskinean jaso da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 17a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL.

2017ko azaroaren 2a, osteguna

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA  
LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK  
URRIAREN 17AN EMANDAKO 115/2017 EBAZPENARENA

ERABAKIA, Gobernu Kontseiluarena, 2017ko urriaren 17koa, zeinaren bidez ebazten diren Euskadiko Industrialdeetan 2017ko ekitaldirako belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautzen eta deitzen duen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko ekainaren 27ko Aginduaren barruan aurkeztutako eskaerak.

2017ko ekainaren 27ko Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta horiek deitzen dituen, 2017ko ekitaldirako.

Agindu honen xedea da jarduera ekonomikoak, ahal dela industrialak, hartzen dituzten edo hartzea aurreikusita duten Euskadiko gune geografikoetan banda zabal ultraazkarreko sareak hedatzeko laguntzak arautzea, gune horiek «NGA gune zuritzat» hartzen badira, hau da, NGA Banda Zabaleko baldintzetan Interneten sartzeko zerbitzuak ahalbidetzeko telekomunikazioen azpiegiturarik egon ez eta datozen 3 urteetan egotea espero ez den guneak.

Deialdian xedatutakoarekin bat eginda, aipatu xedera zuzendutako baliabide ekonomikoak 8.739.848,10 euro dira, honela xehatuta:

– 8.200.000,00 euro, konektibitate behar oso handia duten industrialdeetarako (1. lotea), guztiak ere Telekomunikazioetako eta Informazio Gizarterako Estatu Idazkaritzak Gune Zuri moduan sailkatuta 2017ko ekitaldirako.

– 539.848,10 euro, konektibitate behar handia duten industrialdeetarako (2. lotea), guztiak ere Telekomunikazioetako eta Informazio Gizarterako Estatu Idazkaritzak Gune Zuri moduan sailkatuta 2017ko ekitaldirako.

Laguntzen programan ezartzen denaren arabera, aipatu Aginduan adierazitako diru laguntzen onuradunak izan daitezke sektore pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak, behar bezala gaitutako operadorearen izaera badute, Telekomunikazioei buruzko 9/2014 Lege Orokorraren, maiatzaren 9koaren, 6. eta 7. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta 2017ko ekitaldirako Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta deitzen dituen Aginduan eskatutako gainerako betekizunak betetzen badituzte.

Espedientean dauden Ekintzailtza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartearen Zuzendaritzaren Memorian eta ebaluazio organoaren 2017ko irailaren 27ko aktan honako ohar hauek jasoarazten dira:

– Laguntzen programan sartutako bi loteetarako (1. lotea eta 2. lotea) eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero, eskari bakarra aurkeztu da, Telefónica de España SAU entitatearena, 1. lotearen hedapena egiteko.

– Aurkeztutako eskaintza bakarrak agindu arautzailean ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ditu, guztira 83 punturekin.

– 1. lotearen behin-behineko balorazioaren proposamena onartu eta gero, Telefónica de España, SAU berari jakinarazi zitzaion, komenigarritzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko 10 eguneko epearekin. Alegazioen epearen barruan, Manuel Angel Alonso Perezek, PEBA 00002-2017 espedientearen ondorioetarako Telefonicak ahalorde notarial bitartez balioztatutako ordezkari moduan, izenpetutako idatzia jaso zen.

2017ko azaroaren 2a, osteguna

– 1. lotea behin-behinean Telefónica de España SAUri esleitzeko proposamena 2017ko irailaren 27ko datarekin onartu eta gero, Ebaluazio Organoak esleipenaren behin-behineko proposamena behin betiko proposamen moduan jaso eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari bidali zaio, Gobernu Kontseilura jaso dezan. Behin betiko proposamenean ezartzen da:

1) Onartutako laguntzen zenbatekoa 7.977.068,10 euro da, aurkeztuta eta onartutako 8.863.409,00 euroko aurrekontuaren % 90.

2) Laguntza hori 1. lotean sartutako industrialdeen zerrendan aurkeztutako proiektuak gauzatzera zuzenduko da (146 industrialde), konektibitate behar oso handia duten industrialdeen lotekoak, amaierako erabiltzaileko gutxienez 300 Mb simetrikoko abiadurak lortu ahal izateko NGA sareak ezartzeko, erabiltzaileengandik hurbilen dagoen sareko ekipamenduaren irteeran neurtuta Industrialde horiek Agindu arautzailearen II. eranskinean eta Ebaluazio Organoaren aktan adierazitakoak dira.

Sociedad para la Transformación Competitiva / Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAK (SPRI), Erakunde Laguntzailea den heinean, agindu arautzailearen 16.2.d) artikulua arabera, proiektuak gauzatu direla egiaztatzeko ikuskapenak egingo ditu, bereziki aipatu aginduaren 5. eta 6. artikuluetan aipatzen diren zerbitzuaren baldintza teknikoen gainean, handizkako zerbitzuei dagokienez.

2017ko ekitaldirako Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta deitzen duen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko ekainaren 27ko Aginduaren 31.1 artikulua xedatzen duenez, aurkeztutako eskariak prozedura bakarrean tramitatuko dira, eta horren ebazpena Gobernu Kontseiluari dago-kio, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eskatuta, zeinak ebaluazio organoak formulatutako proposamena helaraziko dion.

Horren guztiaren ondorioz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak proposatuta, eta dagokion bezala eztabaidatu ondoren, Gobernu Batzordeak hauxe erabaki du:

## ERABAKIA

«Lehenengoa.– Telefónica de España SAUk aurkeztutako proiektua onartzea, zeina PEBA 00002-2017 espediente kodeari dagokion, horri 1. lotea esleitzea, aurkeztutako gastuetan guztira 8.863.409,00 euro onartzea eta Telefónica de España SAUri 7.977.068,10 eurora arteko diru-laguntza bat ematea.

Bigarrena.– Laguntza hori 1. Lotean sartutako industrialdeen zerrendan aurkeztutako proiektuak gauzatzera zuzenduko da (146 industrialde), "konektibitate behar oso handia duten industrialdeak" izanik, agindu arautzailearen II. eranskinean adierazten denaren eta erabaki honen eranskinean zehazten denaren arabera.

Proiektua gauzatzeko gehieneko epea 16 hilabete izango da, Erabaki hau jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, eta guztira hemezortzi hilabetera arte luzatu ahal izango da, Agindu arautzailean ezarritako baldintzak betetzen badira.

Hirugarrena.– Erabaki hau interesdunari jakinaraztea. Erabakia aurkatu ahal izango da Jaur-laritzaren Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabete epean.»

2017ko azaroaren 2a, osteguna

## ERABAKIAREN ERANSKINA

INDUSKODEA	LH	Udalerrria	Udal_uni
01Ayalamadura	Araba	Alegria-Dulantzi	Alegria-Dulantzi
01Lurgorri	Araba	Alegria-Dulantzi	Alegria-Dulantzi
01Usategi	Araba	Alegria-Dulantzi	Alegria-Dulantzi
01Amenabar	Araba	Aramaio	Olaeta/Barreiatua
01Barrataguren	Araba	Artziniega	Artziniega
01Ureta	Araba	Artziniega	Artziniega
01Avinorsa	Araba	Armiñon	Armiñon/Barreiatua
01Asparrena	Araba	Asparrena	Araia/Barreiatua
01Tarimas	Araba	Berantevilla	Lacorzanilla/Barreiatua
01Biomendi	Araba	Bernedo	Bernedo
01Gazeta	Araba	Burgelu	Gazeta
01Bodegas	Araba	Eltziego	Eltziego
01Bodegas1	Araba	Eltziego	Eltziego/Barreiatua
01Laguardia1	Araba	Guardia	Guardia
01Laguardia2	Araba	Guardia	Guardia
01Laguardia3	Araba	Guardia	Guardia
01Valecilla	Araba	Guardia	Guardia/Barreiatua
01Casablanca	Araba	Guardia	Laserna/Barreiatua
01Lapuebla	Araba	Lapuebla de Labarca	Lapuebla de Labarca
01Maeztu	Araba	Arria-Maeztu	Maeztu/Barreiatua
01Okondo	Araba	Okondo	Zudibiarte/Barreiatua
01Oionurbano	Araba	Oyón-Oion	Oyón-Oion
01Agraria	Araba	Erribera Beitia	Rivabellosa
01Arasur-Anexo	Araba	Erribera Beitia	Rivabellosa
01El_Ventorro	Araba	Donemiliaga	Durruma/San Román de San Millán
01Okiturri	Araba	Donemiliaga	Durruma/San Román de San Millán
01Izarra	Araba	Urkabustaiz	Izarra
01Tuesta	Araba	Gaubea	Tuesta/Barreiatua
01Bodegas4	Araba	Eskuernaga	Villabuena de Alava/Eskuernaga
01Condesa	Araba	Legutio	Goian/Barreiatua
01Lladie	Araba	Legutio	Goian/Barreiatua
01Islarra	Araba	Zuia	Altube/Barreiatua
01Murgia	Araba	Zuia	Murgia
01Olabarri	Araba	Iruña Oka	Olabarri/Barreiatua
01Trespuentes	Araba	Iruña Oka	Trespuentes/Barreiatua
01Zubillaga	Araba	Lantarón	Zubillaga
20_Txarama Norte	Gipuzkoa	Altzo	Altzo/Barreiatua
20_Txarama Sur	Gipuzkoa	Altzo	Altzo/Barreiatua
20_Ibarreta (Antzuola)	Gipuzkoa	Antzuola	Antzuola/Barreiatua
20_Isuses	Gipuzkoa	Arama	Arama/Barreiatua
20_Orkli	Gipuzkoa	Arama	Arama/Barreiatua
20_Aiu 1 Zubikoeta	Gipuzkoa	Ataun	San Martin/Barreiatua
20_II.2 Andatza-San Pedro	Gipuzkoa	Aia	Andatza/Barreiatua
20_I.19 Santio Erreka	Gipuzkoa	Aia	Santio Erreka/Barreiatua
20_II.4 Aranguren	Gipuzkoa	Aia	Santio Erreka/Barreiatua
20_A.I.U. 7 (Pol. Benta)_8	Gipuzkoa	Belauntza	Belauntza/Barreiatua
20_A.I.U. 9 (Beotibar)	Gipuzkoa	Belauntza	Belauntza/Barreiatua
20A.I.O.10	Gipuzkoa	Belauntza	Belauntza/Barreiatua
20_AIU 10 Sario	Gipuzkoa	Berrobi	Berrobi/Barreiatua
20_AIU 15 Elbarren	Gipuzkoa	Bidegoian	Bidania/Barreiatua
20_Polígono Itziar	Gipuzkoa	Deba	Itziar/Barreiatua
20_Jalotza	Gipuzkoa	Elgeta	Elgeta/Barreiatua
20_Pagatza	Gipuzkoa	Elgeta	Elgeta/Barreiatua
20_Pol. Berraondokua	Gipuzkoa	Elgeta	Elgeta/Barreiatua
20_Urruti	Gipuzkoa	Gabiria	Alegia/Barreiatua
20_Une Oria	Gipuzkoa	Gabiria	Gabiria/Barreiatua
20_Edersal	Gipuzkoa	Gabiria	Gabiria/Barreiatua
20_Portuko Industrialdea	Gipuzkoa	Getaria	Getaria

## 2017ko azaroaren 2a, osteguna

INDUSKODEA	LH	Udalerrria	Udal_uni
20_Txori-Tonpe Industrialdea	Gipuzkoa	Getaria	Getaria
20_Igarategi Industrialdea	Gipuzkoa	Getaria	San Prudentzio/Barreiatua
20_Erota	Gipuzkoa	Idiazabal	Idiazabal/Barreiatua
20_Jaso (Idiazabal)	Gipuzkoa	Idiazabal	Idiazabal/Barreiatua
20_Fagor-Garagartza	Gipuzkoa	Arrasate	Garagartza/Barreiatua
20_Kobate	Gipuzkoa	Arrasate	Garagartza/Barreiatua
20_Meatzerreka	Gipuzkoa	Arrasate	Meatzerreka/Barreiatua
20_Pol. Antzomendi (Galdona)	Gipuzkoa	Mutriku	Galdona/Barreiatua
20_Mijoa U.E.3 Txirritxa	Gipuzkoa	Mutriku	Mijoa/Barreiatua
20_11. Oximek	Gipuzkoa	Ormaiztegi	Ormaiztegi/Barreiatua
20_12. Irizar	Gipuzkoa	Ormaiztegi	Ormaiztegi/Barreiatua
20_13. Peydesa	Gipuzkoa	Ormaiztegi	Ormaiztegi/Barreiatua
20_A.46 Altzibar	Gipuzkoa	Oiartzun	Altzibar/Barreiatua
20_Egiluze	Gipuzkoa	Errenteria	Errenteria/Barreiatua
20_Al.18 Papin	Gipuzkoa	Donostia	Donostia
20_Aldaba - Berazubi – Haundi	Gipuzkoa	Tolosa	Aldaba/Barreiatua
20_AIU. 24 Iturbe	Gipuzkoa	Urnieta	Urnieta/Barreiatua
20_A. 86	Gipuzkoa	Usurbil	Aginaga/Barreiatua
20_Osintxu	Gipuzkoa	Bergara	Osintxu/Barreiatua
20_Ola	Gipuzkoa	Bergara	Elorregi/Barreiatua
20_Ubera	Gipuzkoa	Bergara	Ubera/Barreiatua
20_Labegaraieta	Gipuzkoa	Bergara	Bergara
20_A-1_Urretxu	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu
20_A-2	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu
20Aceria	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu
20_Erratzu	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu/Barreiatua
20_Olaeta	Gipuzkoa	Zaldibia	Zaldibia/Barreiatua
20_Urteta	Gipuzkoa	Zarautz	Zarautz
48_Burdinola	Bizkaia	Amoroto	Ugaran/Barreiatua
48Ugarriza	Bizkaia	Arakaldo	Arakaldo/Barreiatua
48_Zelaia	Bizkaia	Arantzazu	Zelaia
48_Arbide	Bizkaia	Arankudiaga	Arene/Barreiatua
48_Rezola	Bizkaia	Arrigorriaga	Arrigorriaga/Barreiatua
48Martiertui	Bizkaia	Arrigorriaga	Martiartu/Barreiatua
48_Artzalde	Bizkaia	Bakio	Artzalde/Barreiatua
48_Gardotza	Bizkaia	Berriatua	Asterrika/Barreiatua
48_Olaso	Bizkaia	Berriatua	Magdalena/Barreiatua
48_Trebol	Bizkaia	Busturia	Altamira-San Kristobal
48Ambasaguas	Bizkaia	Karrantza Harana	Ambasaguas
48_Altza	Bizkaia	Etxebarría	Altzaa/Barreiatua
48_Galartza	Bizkaia	Etxebarría	Galartza/Barreiatua
48_La Aceña	Bizkaia	Galdames	La Aceña/Barreiatua
48_Gatika	Bizkaia	Gatika	Ugarte/Barreiatua
48_Padura	Bizkaia	Güeñes	Sodupe
48Amunaga	Bizkaia	Gernika-Lumo	Arana
48_Danobat	Bizkaia	Ispaster	Ispaster-Elexalde
48_Basokoetxe	Bizkaia	Ispaster	Ispaster-Elexalde
48_Arbizola	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua
48_Ortuzar	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua
48_Saturnino	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua
48_U. E. Sasikola	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua
48_Maderas Lekue	Bizkaia	Larrabetzu	Uria
48Sarrikola	Bizkaia	Larrabetzu	Uria
48_Beitía	Bizkaia	Larrabetzu	Larrabetzu/Barreiatua
48Aldebarrena	Bizkaia	Mañaria	Mañaria/Barreiatua
48_31. Dentici	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein
48_32. Barinaga	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein
48_34. Esperanza	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein
48_33. Otolá	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein/Barreiatua
48_35. Urlo	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein/Barreiatua
48_37. Erdoza	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein/Barreiatua
48Muxika	Bizkaia	Muxika	San Roman/Barreiatua

2017ko azaroaren 2a, osteguna

INDUSKODEA	LH	Udalerrria	Udal_uni
48_Saui Agerre-Untxeta	Bizkaia	Muxika	Ugarte/Barreiatua
48_Fergoplast	Bizkaia	Muskiz	San Juan de Muskiz
48_San Antonio	Bizkaia	Otxandio	Otxandio
48Vicinay	Bizkaia	Otxandio	Otxandio
48_Zelaieta	Bizkaia	Otxandio	Otxandio/Barreiatua
48Renteria	Bizkaia	Ondarroa	Ondarroa/Barreiatua
48_Ukerria	Bizkaia	Urduña	Orduña/Barreiatua
48_Zubiaur	Bizkaia	Orozko	Bengoetxea
48_Torrezar	Bizkaia	Orozko	Murueta/Barreiatua
48_El Arenao	Bizkaia	Sopuerta	El Arenao
48_La Sota	Bizkaia	Sopuerta	Las Ribas
48_Igeltzera	Bizkaia	Urduliz	La Campa/Barreiatua
48_Labetxe	Bizkaia	Urduliz	Mendiondo/Barreiatua
48Arla	Bizkaia	Balmaseda	Peñueco/Barreiatua
48Markoida	Bizkaia	Atxondo	Apatamonasterio
48Basauntz	Bizkaia	Igorre	Basauntz/Barreiatua
48_San Juan	Bizkaia	Igorre	San Juan
48Urkizu	Bizkaia	Igorre	Urkizu/Barreiatua
48Okango	Bizkaia	Zaldibar	Gazaga
48_Nocedal	Bizkaia	Zalla	La Herrera/Barreiatua
48_Neinver	Bizkaia	Derio	San Antolin/Barreiatua
48_Poligono Industrial Aeropuerto	Bizkaia	Derio	San Esteban/Barreiatua
48_Área Terciaria Hospital Quirón	Bizkaia	Erandio	Goiherrri/Barreiatua
48_Fatima	Bizkaia	Erandio	Lutxana-Enekuri/Barreiatua
48_S.U.I. Murueta	Bizkaia	Murueta	Murueta/Barreiatua
48_Nabarnizko Industrialdea	Bizkaia	Nabarniz	Elexalde